

HERRIKO JAIETAN JARTEN DIRAN TXOSNA ETA ANTZEKOEN INSTALAZINO, ADKUDIKAZINO ETA FUNTZIONAMENDUAREN GANEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Aplikazio eremua

1. Ordenantza honen helburua hau da: herriko zein auzoetako jaietan eta bestelako ospakizunetan jartzen diran txosna ez profesionalen eta antzekoen instalazinoa arautzea.
2. Aplikazio eremua: ordenantza hau Mungiako udal mugarte osoan aplikatuko da.

2. artikulua.- Instalatuko diran txosnek bete beharreko baldintzak.

1. Instalazio horreek Mungiako Udalaren organo eskudunak –interesdunen eretxiak entzun ostean– alde aurretik zehaztutako lekuetan baino ezingo dira jarri
2. Instalazinoak pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko ezinbestekoak diran baldintza teknikoak bete beharko dabez, baita hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko behar diranak bere; kasu bakotxean bete beharreko arauak betez eta, batez bere, ondoko eremuei jagoken guztian: egituren sendotasun eta funtzionamendua, suteetarako prebentzio- eta babes-neurriak, osasungarritasuna eta higiena.
3. Txosna-eremuaren kokapena eta instalazinoen kopurua eta aldiak Udalak zehazten dituanak izango dira. Dana dala, Udalak beste baldintza batzuk ezarri ezean, ondokoak izango dira baldintzak: instalatuko diran txosnak gehienez bere 6 izango dira; eta horreen gehienezko neurriak ondokoak izango dira: hamabi metro zabaleran (12m.) eta zortzi metro sakoneran (8m.). Horren ganera, beste talde batzuk txosnarik konpartitu ezin danean (Ordenantza honetako 4.1b artikulua), beste txosna 1 jarri ahal izango da, eta horren gehienezko neurriak ondokoak izango dira: sei metro zabaleran (6m.) eta lau metro sakoneran (4m.).

Edozein kasutan bere, batetik bestera gitxienerako tartea itxi beharko da, hau da, 3 metrokoa (3m.).

Instalazio-lanak ezin izango dira hasi Mungiako Udalaren organo eskudunak ezarritako egunera arte, eta ondo instalatuta egon beharko dabe jendaurrera idegi baino 24 ordu lehenago. Behin jaiak amaituta, guztiz kenduta egon beharko dabe 72 orduko epearen barruan.

4. Txosna imintek ez dau Sukalkia antolatzeke eskubiderik kentzen.

II. TITULUA. TXOSNEN USTIAPENAREN ETA FUNTZIONAMENDUAREN ADJUDIKAZINOA

3. artikulua.- Eskarien eta dokumentazioaren aurkezpena.

1. Ondoko baldintzak bete behar dira txosna ustiatzeko baimena hartzeko aukerea izateko: Legez eraturako Mungiako entidadeek edo alkarteek izatea eta, aldi berean, irabazi-asmo bakoak eta euren jarduerak Mungiako Udalerriaren barruan garatzen dabenak izatea.

2. Eskariak Mungiako Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoan aurkeztu behar, Udalak kasu bakoetxean aurretik horretarako zehazten dauen epearen barruan eta moduan.

3. Eskari-orriagaz batera ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Txosnatik aterako dan dirua zertarako erabiliko dan azaltzen dauen aurreikuspen-memoria.

b) Eskaria egiten dauen alkartearen urteko memoria eta aurrekontua (ez da kontuan hartuko herriko jaietan txosnea instalatzeak eta ustiatzeak sortzen dauen aurrekontua).

c) Aurreko urtean txosna imini bada, likidazio ekonomikoa aurkeztu beharko da, baita lortutako irabaziak zertan erabili diran azaltzen dauen txostena bere. Txosna iminteko eskaera aurkezten dauen alkartearen jardunaren finantziarioa ezin da txosnatik aterako dan diru horren pentzuan egon huts-hutsean.

d) Alkartearen curriculumak; bertan, urte horretako ekintzen eta euren aurrekontuen barri emoten behar da (horretatik kanpo lotuko da herriko jaietan txosnea ustiatzeak sortzen dauen aurrekontua).

4. artikulua.- Txosnen ustiapenaren adjudikazinarako erizpideak

1. Ondoko erizpideak hartuko dira aintzat txosnen instalazioa adjudikatzeko:

a) Eskaria egiten dabenek Mungia Udal Erregistroan inskribatutako kultur-, kirol-, heziketa- edo gizarte- talde edo alkarteek izan beharko dabe, irabazi-asmo bakoak, eta euren egoitzak Mungian egon behar dau. Horren ganera, talde edo alkarteok herritar guztien intereseko ekitaldi nagusiren bat antolatu beharko dabe, edo, ezpabere, euren urteko programan ekitaldi jarraitu batzuk sartu beharko dabez.

b) Talde edo alkarte horreen urteko programazinoak 9.000,00 eurokoa izan beharko dau. Programazinoan 9.000,00 euroko edo hortik beherako aurrekontua daukien talde edo alkarteek beste talde batzukaz batera jarri ahal izango dabe txosnea, beti bere, aurreko paragrafoan agertzen diran baldintzak beteten badabez. Txosna banatzea edo konpartitzeak hau esan gura dau: alkarte bik edo gehiagok ustiatuko dabela txosna bakarra (2.3 artikuluan ezarritako neurriak gainditzen ez dituana). Txosnaren ustiapena ezin bada konpartitu, txosnetako batek neurri hau izan beharko dau: Ordenantza honetako 2.3 artikuluan azaltzen dan neurriaren erdia.

c) Eskaria egiten daben talde eta alkarteek ezin dabe euki aurreko urte bietan sano larritzat jotzen dan arau-hausterik.

d) Talde edo alkarte eskatzaileak herrian daukan eragina eta bere ibilbidea bere kontuan hartuko dira; baita bazkide- eta kide-kopurua eta urtean zehar herri mailan antolatzen diran proiektuetan izaten dauen parte-hartzea eta koordinazino maila bere.

2. Txosnea ipinteko eskarien kopurua Udalak baimendutako txosna-kopurua baino handiagoa bada, ezarritako baldintzen betete-maila baloratuko da; eta horretarako, ondoko puntuazino-arauak erabiliko dira:

a) Modu berezian baloratuko da urtean zehar herrian egiten diran jardueretan alkarte eskatzaileek erakusten daben koordinazino-maila eta parte-hartze aktiboa; gehienez, 30 puntu.

b) Alkarteen urteko aurrekontua; 20 puntu emongo jakoz aurrekonturik altuena daukan alkarteari.

c) Alkarteen ibilbidea eta antxinatasuna; gehienez, 20 puntu.

d) Alkarte eskatzaileak zenbat eta parte-hartze handiago izan jai-jardueretan, orduan eta puntu gehiago emongo jakoz txosna eskarian; gehienez, 10 puntu.

e) Jai Batzordeko kidea izan izana, gitxienez akabuko hiru urteetan. Puntu gehiago izango ditue Jai Batzordeko kidea luzaroan izan dirala egiaztatzen daben alkarteak; gehienez, 10 puntu.

5. artikulua.- Alkarte adjudikazioduek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Epe barruan aurkeztutako eskariak onartu eta eskatzen diran baldintzen betete-maila baloratu ostean, Udalak behin-behineko adjudikazioa argitaratuko dau. Orduan, adjudikazino hori argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 7 egun naturaleko epea egongo da ondoko dokumentazioa aurkezteko:

- a) 300 euroko fidantzea ordaindu izanaren agiria.
- b) Erantzukizun zibileko poliza indibiduala (frankizia bakoa) eta berorren ordainagiria. Erantzukizun zibileko poliza indibiduala (horren kopurua ez da izango Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 LEGEak ezartzen dauena baino baxuagoa), baimendutako jarduera dala-eta ikusleei edota hirugarrenei egin leiezan kalteak ordaintzeko.
- c) Elikagaien manipulatzaile-karneta, janariak prestatzen ibiliko diran guztien kasuan.
- d) Txosnearen ordezkaria (erabagiak hartzeko ahalmen nahiko daukana) nor dan adierazo beharko jako Udalari; persona horrek beti egon beharko dau beragaz hartu-emonetan paretako moduan.
- e) Egiturearen agiri teknikoak, 1:100 eskalan, eraketaren ezaugarriak zehaztuta, horretan eskumena daukan teknikariak egindako egiaztagiraren bidez.

6. artikulua.- Eskarien ganeko ebazpena.

1. Dokumentazio hori aztertu ostean, Udalak behin betiko adjudikazioa egingo dau. Eskariei erantzuteko erabagi arrazoituak erabiliko dira, araudi honetan ezarritako erizpideei jarraituta. Adjudikaziotik kanpo lotuko dira eskatzen dan dokumentazio guztia aurkezten ez dabenak, baita eskatzen dan moduan aurkezten ez dabenak bere.

2. Txosna jarritakoan, jendurrean idegi baino 48 ordu lehenago, dokumentazio hau aurkeztu beharko dabe:

a) Instalazioak segurtasun-, osasun- eta higiene-baldintzak beteten dituala erakusten dauen egiaztagiria.

b) Industriako Lurralde Ordezkaritzak instalazio elektrikorako egindako boletina.

c) Argia hartzeko baimena.

d) Suteen kontra hartu diran babes-neurrien ganeko informazioa. Horretarako jarri diran su-itxalgailuen kopurua eta mota. Gitxienetik 21-113B eraginkortasuna daukan su-itxalgailu bat jarri beharko da, berrikuste-azterketetan egunean dagoana eta erabilteko oztoporik ez daukana.

3. Adjudikazioa izan dauen talderen batek txosna-adjudikazioari uko egin ezkeru, beste eskatzaile bati adjudikatuko jako, ordenantza honetan ezarrita dagozan erizpideei jarraituta.

7. artikulua.- Alkarte adjudikaziodunen betebeharrak.

1. Adjudikaziodunak behartuta dagoz araudi honetan eta honetatik goragoko mailakoak izanda aplikagarriak diran beste batzuetan ezarrita dagozan baldintzak beteten. Era berean, ustiapena zuzenean egingo dau adjudikaziodunak; inoiz ez hirugarren bati lagata edo alokairu eran.

2. Instalazio edo txosna guztien artetik ordezkari bi aukeratuko dira, eta eurak izango dira ustiapenaren hasikeratik amaierara bitartean Udalgazko eta Jai Batzordeagazko solaskideak. Solaskideok jarduerak dagozan denpora tarte osoan egon beharko dabe aurkitzeko moduan eta eurakaz hartu-emonetan jartzeko moduan.

8. artikulua – Ikuskaritza eta kontrola

Hasierako ikuskapen teknikoa egin ostean bere, Udalak bere langileen bidez edozein momentutan aztertu ahal izango dauz txosnak edota instalazioak bertako egoera eta baldintzak egokiak dirala egiaztatzeko.

III. TITULUA TXOSNEN INSTALAZINO ETA FUNTZIONAMENDUAREN BALDINTZA OROKORRAK

9. artikulua.- Baldintza higieniko-sanitarioak.

1. Janariakaz eta edariakaz lotuta dagozan jarduera guztiak egiteko (baita pilatze eta biltegi-lanak bere), ondoko ezaugarriak beteten dabezan instalazioak erabili beharko dira: estalkidunak, eguraldiaren eragin kaltegarrietatik babestuak, argitasun egokidunak eta kanpoko jenteari bertarako sarbiderik emoten ez deusienak.

2. Eskatzaileek ziurtatu egin beharko dabe bete egiten dabela Adizkioen eta Droga Mendekotasunen ganeko Arreta Integrala arautzen dauen apirilaren 7ko 1/2016 Legeak ezarritako guztia, batez bere, 18 urtetik beherakoei txosna barruan egoteko eta tabakoa zein edari alkoholdunak saltzeko debekua. Debeku horren barri emoten dauen 42x30 neurriko kartela jarri beharko da ondo ikusteko moduko lekuan.

3. Instalazioak. Janariak erabiliko diran eremuan harria eta txorrotako ura eduki beharko dira. Hozkailuak bere euki beharko dira, janari gaiak sartzeko bestekoa.

4. Erabilten diran basuak eta abar erabili eta botatekoak eta biodegradagarriak izango dira.

5. Janariak prestatzen dabezanek derrigorrean euki beharko dabe janari-erabiltzeen txartela. Persona horreek –euren lana beteteko eta janariak prestatuko– arropa egokia erabili beharko dabe, horrexetarako baino ez dana. Janaria prestatzen dabilzanek garbi ibili beharko dabe; eta, era berean, euren erropeak eta jarduerarako erabilitako tresnek bere garbi egon beharko dabe.

6. Janariak baimena daukien lokaletan erosi beharko dira, ondo etiketatutakoak izango dira. Produkturen batek etiketarik ez badauka (kasurako, salmenta fakturatuko okeleak), jagokon fakturea gorde beharko da bere jatorria zein dan egiaztatzeko. Hotzetan euki beharreko okelak hozkailuan sartuko dira.

7. Udalak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailera jo ahal izango dau elikagaiei edo baldintza higieniko-sanitarioei buruzko ikuskatze lanak egiteko.

8. Garbitasuna: txosnek garbitasun eta higiene neurriak bete beharko dabez; eta, behin eguneko udal zabor-bilketa egin ostean, txosnek ezingo dabe euren zaborra kanpora atera. Azken kasu horretan, zaborra horretarako jarritako edukinontzietan sartu beharko dabe.

9. Instalazioaren behearen ganean iminiko dan materiala eguneroko garbiketa egiteko egokia izango da, erraz garbitzekoa eta hondakinik batzen ez dauena (ez likido ez solidorik); era berean, jatekoek ez dabe inoiz beherik ikutuko.

10. Hustubide guztiek egon beharko dabe ur baltzen estolderia-sareagaz lotuta.

10. artikulua.- Zarata eta ordutegiei lotutako baldintzak.

1. Udalak ezarriko dau instalazioak zabaldu eta ixteko ordutegia.

2. Ixteko ordua danean, amatatu egingo da megafonia, txosnak itxi egingo dira eta txosna barruetan garbitzeko eta ixteko ardurea daukienak baino ez dira lotuko. Ixteko ordutegiaren barri emoten dauen kartela jarri beharko da ondo ikusteko moduko lekuan

3. Instalazio horreek ezin izango dira erabili Jai Batzordeko arduradunek, jaien egitarauan aurreikusitako arrazoiak dirala medio, halan erabagiten dabenean.

4. Bide publikoetara, gehenez bere, 95 dezibelioko zarata-igorpena egin ahal izango da jarduera hasi eta 24:00etara arte (ezingo da hasi 12:00ak baino lehen); eta 24:00etatik itxi arte, barriz, 80 dezibeliokoa.

5. Txosna-eremuan musika bakarra entzungo da; hau da, txosna bakotxak ezingo dau musika desbardinik jarri.

11. artikulua.- Instalazio eletriakoaren baldintzak.

1. Argi-hartzea eta argi-instalazinoa txosnen/instalazinoen arduerea izango da.

Txosnearen titularrak barraka-kontratua egin beharko dau konpainia elektriko hornitzaile baimenduagaz, eta tekniko espezializatuak egindako industria-buletina kontratatu beharko dau.

2. Txosna batek baino gehiagok erabili ahal izango dabe instalazino elektriko bera; beti bere, baldintza tekniko egokiak beteten badira.

3. Kableak airez botatea hobesten da eta ezin izango da kablerik behearen ganean sakabanatuta jarri, batera jarri beharko dira eta persona eta autoen pasabideetan babestuta.

12. artikulua.- Segurtasun-baldintzak.

1. Txosnen edo antzeko instalazinoen adjudikazinoa lortzen daben taldeek edo entidade eskudunek erantzukizun zibileko poliza (frankizia bakoa) egin beharko dabe modu indibidualizatuan eta jarduerari ekin aurretitik.

2. Horren ganera, behin eskaerea onartutakoan, eskaereagaz batera eraikinaren ezaugarriak azaltzen dituan egituraren ganeko dokumentazino teknikoa eta 1:100 eskalako planoak aurkeztu beharko dira Udalean, horren ganean eskumena daukan teknikariak egindako ziurtagiria bere bai (zailtasun tekniko gitxiko instalazinoen edo euren ezaugarriengaitik holangorik behar ez daben kasuan izan ezik). Iminiko dan instalazinoak egitura sendoa daukala ziurtatu beharko dau ziurtagiri horrek.

3. Materiala ez da zuzenean zoladura ganean josiko eta, derrigorrean erabili beharko dira egurrezko zapatak edo takoak.

4. Konbustio- edo berotze-aparaturen bat jarri beharra izan ezker, 1,5 metroko distantzia itxiko da euren artean. Gas-bonbonek segurtasun-balbulea euki beharko dabe.

13. artikulua.- Gizarte mailako baldintzak.

1. Mungiako Udalak ez dau ezer kobratuko jai ofizial edo tradizionoetan txosnak iminten ixtearren. Dana dala, adjudikazinoa lortu daben taldeek fidantza bat jarri beharko dabe (fidantzearen zenbatekoa eskumena daukan organoak ezarriko dau urtero); baina

fidantza hori atzera bueltatuko jake araudi honetan agertzen diran baldintza guztiak bete ezkeru.

2. Txosna Batzordea Jai Batzordearen parte izango da eta txosna-eremuan antolatuko diran ekintzetarako proposamena aurkeztuko ditu. Jai Batzordeak baloratu eta onartu beharko dau proposamen horren kalidadea eta koherentzia, eta, ganera, jaietako ganerako ekintzakaz bere koherentea izan beharko dau, jai-egitarau bakar eta koherentea osatu ahal izateko.

3. Alkarteak behartuta dagoz programatutako kultur, gizarte edo kirol jardueretan laguntzen edo, halan bajagoko, antolatzen. Dana dala, derrigorrean parte hartu beharko dabe Jai Batzordeak halan erabagiten dauen jardueretan.

4. Horren ganera, ekintzak antolatzeko Udalak itxi deutsezan azpiegiturak (zuzenean edo zeharka) jagon egin beharko dabez.

5. Egiten diran kartel eta ohar guztietan, baita jartzen dan musikan bere, euskerearen presentziak, gitxienetik, %65ekoa izan beharko dau. Horretarako, Mungiako Udaleko Euskera Sailaren laguntza teknikoa izango dabe.

6. Txosnetan jarriko diran kartelek sustatu egin beharko dabe hizkeraren eta irudien erabilera inklusiboa eta bardinzealea. Era berean, agertzen diran irudiak ezin izango dira inoiz bere andrazkoentzako iraingarriak izan, eta ezingo dabe andrazkoen kontrako indarkeria transmitidu, bultzatu edota justifikatu, ezta indarkeria horren aurrean ulerkor agertu bere.

14. artikulua.- Baldintza komertzialak.

1. Publikoarentzako salmenta-prezioak kartel baten jarriko dira, jenteak ikusteko moduko lekuan; eta prezio horreek bat etorri beharko dabe produktuok sasoi horretan merkatuan daukienagaz. Prezioek Txosna Batzordean adostuak izan beharko dabe; eta, eskaintzen dan produktua/zerbitzua bat danean, prezioek bere bat egin behar dabe.

2. Baimendutako txosnek euren estetikea, garbitasuna eta ordena jagon beharko dabez, bai txosna barruan, bai kanpoan eta bai txosna-gunean bere.

IV. TITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

15. artikulua.- Printzipio orokorrak.

1. Ordenantza honen kontrako arau-haustetzat ondokoak joko dira: ordenantza honen artikuluetan ezarritakoaren kontrako jarduerak eta ez-egiteak, baita ordenantza hau oinarri hartuta emoten diran baimenen kontrakoak bere. Arau-hauste horreek holan sailkatuko dira: arau-hauste arinak, larriak eta sano larriak.

2. Arau-hausteak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 139. artikulua eta ondokoek ezartzen dabenaren arabera zehaztuko dira; izan bere, arau-hauste horreek alkarbizitza kaltzetzen daben jarreratzat jotzen dira. Horri lotuta, arau-hauste maila desbardinak ezarri dira araudi honetan aurreikusitakoa beteten ez danerako.

16. artikulua.- Arau-hausteak.

1. Arau-hauste arinak:

Ordenantza honetan ezarritako edozein baldintza ez betetea arau-hauste arintzat joko da, baldin eta arau-hauste hori ez bada larritzat edo sano larritzat zehaztu. Era berean, arau-hauste arintzat joko da Udalak egindako eskariak ez betetea bere (lizentzia emoteko egindakoak zein ostean egindakoak).

2. Arau-hauste larriak:

a) Instalazioa ezarritako ordutegitik edota egunetatik kanpo zabaltzea.

b) Zarata lar egitea.

c) Udalari ikuskapenak edo kontrolak egiten itxi ez egitea edo trabak jartzea.

d) Baimen-epearen barruan arau-hauste arin bi edo gehiago egitea.

e) Edariak beirazko ontzietan emotea.

3. Arau-hauste sano larriak:

- a) Instalazioa zabaltzea Udalak horretarako baimena emon barik.
- b) Instalazioak imini edo kentzeko ezarritako kokapena edo epeak ez errespetatzea.
- c) Erabilteko edo zerbitzurako diran ondasunei eta ondare publikoei kalte larriak eragitea.
- d) Adjudikatutako titularitatea aldatzea zein eskualdatzea, edo adjudikatutako txosnearen edo gunearen ustiapena inori ixtea (osorik edo parte bat).
- e) Instalazio hori, aurreikusita edo baimenduta dagoan erabilerarako barik, beste zeozertarako erabiltea.
- f) Osasun-neurriak ez betetea eta, horren ondorioz, osasun publikorako arrisku larria sortzea.
- g) Personen duintasunaren kontrakoak izan leitekezan eta jaietako ekintzen normaltasuna eta alkarbizitza arriskuan jarri leien testu, esaldi, irudi edota bestelakoak azaltzea.
- h) Baimen-epearen barruan arau-hauste larri bi edo gehiago egitea.

4. Zigorak ezartzeko orduan, kontuan hartu ahal izango da taldeak/alkarteak arau-hauste horreetarikoren bat behin baino gehiagotan egin badau; eta ondorioz, zehapen maila altuagoa ezarri ahal izango jake; baina, beti bere, zigor-maila beraren barruan.

17. artikulua – Zehapenak.

1. Ordenantza honetan araututako arau-hausteetarako aurreikusitako zehapenak ondoren azaltzen diranak dira, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 141. artikuluari jarraituta. Ordenantza honetako aurreko atalean aurreikusitako arau-hausteei aplikatu ahal izango jakezan zehapenak honako honeek dira:

2. Arau-hauste arinei 750,00 eurora bitarteko isuna jarri ahal izango jake, edota txosnea iminteko debekua zein txosnea gehienez bere urtebete (1) erabiltekoa.

3. Arau-hauste larriei 1.500,00 eurora bitarteko isuna jarri ahal izango jake, edota txosnea iminteko debekua zein gehienez bere urte bian (2) erabiltekoa.

4. Arau-hauste oso larriren bat egin ezkerro, ondoko zigorretakoren bat edo gehiago ezarri ahal izango jakez:

- a) 3.000,00 eurora bitarteko isuna.
- b) Emondako baimena baliogabetzea.
- c) Txosnea instalatzea edo erabiltea galarazotea, gehienez bere hiru (3) urterako debekua izango da.

5. Aurreko atalean azaldutako arau-hausteen ondorioz jarriko diran zehapenak alkatetzak ezarriko ditu, legeari jarraituta eta interesdunari esateko daukana azaltzeko entzunaldirako aukerea emon ostean.

6. Zehapenak zehazteko eta ezartzeko, proporzionaltasun-printzipioa aplikatuko da (aurreko atalean ezartzen da zigorren gehienezko kopurua). Printzipio hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 29 artikulua ezarritakoari jarraituta aplikatuko da. Egindako arau-haustearen eta ezarritako zigorraren artean oreka egotea bilatuko da, horretarako ondoko erizpideak erabiliko dira:

- a) Erruduntasun maila edota gurata egin izana.
- b) Arau-haustea egiten jarraitu izana edota horretarako jarrera ez aldatzea.
- c) Eragindako kalteen ezaugarriak.

7. Halan jagokonean, Udalak arau-hausteei lotutako salaketak tramitatu ahal izango ditu eskumena daukien beste organo batzuen aurrean.

18. artikulua.- Kautela-neurriak.

Udalak edo organo eskudunak eskumena izango dau jardueria aldi baterako amaitutzat joteko (ezelango kalte-ordainik emon barik), hemen jasotako baldintzak ez dirala beteten ziurtatzen badau, instalazioak arriskuren bat sortu balei edo osasun publikorako arriskua balego.

Jarduera hori harik eta baldintzak behar bezala bete arte egongo da etenda; eta horren ganera, Udalak jagokozan zehapenak ezarri ahal izango ditu.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honetan ezarritakoaren kontra edo kontraesanean dagoan guztiari jagokonez, indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheragoko mailako arau guztiak.